

**MOTA GAZTELUA**  
A MAILA**URGULL MENDIA**

Egilea eta data: Hercules Torrelli, XVIII. mendearen amaiera aldea

**Deskribapena**

Hiriaren gotorlekuak (itsas merkataritzako eta mugako kokaleku bereziagatik egin zuten) XII. mendean du jatorria. Ziur aski, Nafarroako errege Antso Nagusiak puntu garaienean gaztelu txiki bat eraikitzen parte hartu zuen. Barruti harresidunak bultzada bat izan zuen 1529 inguruan Villaturriel komendadorearen bitartez. 1719an, Berwick-eko dukeak gotorlekua hartu zuen. XVIII. mendearen amaiera aldean, Hercules Torrellik berreraiki zuen eta, 1794an, frantsesek berriz ere mendean hartu zuten. Gerra napoleonikoen ondorioz, haien esku egon zen 1813 arte. Une horretan, armada ingelesak frantsesak kanporatu zituen. Armada ingelesak hiria arpilatu eta su eman zion, Graham jeneralaren agintepean. Ondoren, gaztelua berritzen joan ziren, legio ingelesa I. Karlistaldian ezarri zen eta, 1955ean, Jesusen Bihotzaren eskultura ipini zuten punturik garaienean. Gaztelua Urgull mendiaren alde altuenean eta horren gailurraren zehar igarotzen den defentsa lerroaren erdian dago. Ekintza nagusia luraren gainean du. Gaztelua Matxo izeneko dorreak eta plataforma zabal batek osatzen dute. Defentsa lerroaren muturretan, Erreginaren bateria eta Printzearen bateria daude, horma gezileihodun batek babestutako bidearen bitartez elkartuta. Bateria garrantzitsuenak, Begiratokikoak, Urumearen bokalerantz du ekintza, eta itsas mailaren gainetik 59 m-ra dago kokatuta. Beste muturrean, Damen bateriak portua estaltzen du. Santa Klarako bateriak, uhartearen aurrean, badiarako sarbidearen gainean du ekintza; eta iparraldean, itsasoaren aurrean, Bardoka bateria dago. Gazteluko iturria edo Bardoka iturria, berriz, Urgull mendiko multzo gotortuari dagokio eta mendebaldeko muturrean dago, Pasealeku Berriaren ondoan.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berariazko erregimena:  
Monumentu arkitektoniko-artistikotzat deklaratu izanaren ondoriozkoa (Gaceta de Madrid, 53 zk., 1925-8-21ekoa); monumentu historiko-artistiko nazionaltzat deklaratu izanaren ondoriozkoa; interes historiko-artistikoko probintzia monumentu deklaratu izanaren ondoriozkoa –1964-1-17ko Ministro Aginduaren bidez (52. BOE, 1964-2-29koa)–; eta monumentu historiko-artistiko nazionaltzat deklaratu izanaren ondoriozkoa –265/1984 Dekretua (132. EHAA, 1984-8-4koa).
- \* Eragindako ingurunea: xedapen horietan ezarritakoa.